



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2021eko ekainaren 21a

83. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### F SAILA:

#### Galderak:

- Galdera, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (6. or.).
- Galdera, parke eolikoen proiektu berrien eskaerei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (9. or.).
- Galdera, “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Errenta Bermatuaren hartzaileak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, “Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzeko laguntzak” partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).

- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, “TICS-SCHOOL. Softwarearen garapeneko espezialitate berrietan profesionalak prestatzea eta enpresa-ehunaren nahiz Nafarroako zerbitzu publikoen eraldaketa digitalerako behar diren konponbideak ezartzea” 11 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzuarekin lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (17. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua eta enpresa-sektoreak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “COVID-19ak ukitutako sektoreetako langileak birlerrokatzea” 15 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta Nafarroako Enplegu Zerbitzua, Nafarroako Pertsonen Autonomiarako eta Garapenerako Agentzia eta sektoreko enpresak lankidetzan aritzeko sistemari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektua dela-eta gizarte zerbitzuen mankomunitateekin eta udalekin lankidetzan aritzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, “Pertsonen zaintzari buruzko ikuskera berria: pertsona erdigunean jartzen duen eredu asistentzial berri baterantz” 19 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren laguntza teknikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren kudeaketa-modalitateari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (23. or.).
- Galdera, “Kolektibo zaugarrientzako prestakuntza eta enplegu programa integratuak” 14 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren programazio berriari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (24. or.).

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa.****FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Cristina Ibarrola Guillén andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Batzorde Tekniko Aholku-emaileari buruzkoa. Galdera 2020ko abenduaren 4ko 136. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Cristina Ibarrola Guillén andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (10-20-PES-00321, berretsia); haren bitartez, "informazioa eskatzen du batzorde tekniko aholku-emaile bat egoteari buruz". Honako hau da Nafarroako Gobernuako Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Pandemiarekin lotutako auzi tekniko eta asistentzial garrantzitsuetan Osasun Departamentuari aholku emateko batzorde tekniko ez zen inolako prozeduraren bidez eratu; izan ere, departamentu barruko talde bat da, aholku ematekoa eta hausnarketa egitekoa, erabakitze ahalmunik ez duena eta lau aldiz bildu dena (bilera horietan jorratutako gaien dokumentu idatziak erantsita bidali genituen PEI-00473 informazioeskarian).

Aholku ematekoa, aldi baterakoa eta ez-ohikoa denez (pandemiaren kontu zehatz batzuetarako baino ez) eta presaz eratu eta bildu behar izan zenez, ez zen foru agindu bidez formalizatu, nahiz eta haren funtzioak eta osaera departamentu barnean zehaztu ziren. Informazio hori lehenago eman zen jada.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 4an

Osasuneko kontseilaria: Santos Induráin Orduna

## Galdera, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Luisa De Simón Caballero andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Sozietateen gaineko zergari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra talde parlamentario mistoko foru parlamentari Marisa de Simón Caballero andreak idatziz erantzuteko galdera bat egin du (PES-00161), 161. sarrera-zenbakiarekin erregistratu dena 2021eko apirilaren 26an. Honako gai hauei buruz galdetzen du:

1. Nafarroako enpresek azken 2 urteetan aitortutako galera guztien baturaren zenbatespena.

2. Nafarroako enpresek azken 2 ekitaldi ekonomikoetan sozietateen gaineko zergan izandako

galerengatiko konpentsazioen guztizko baturaren zenbatespena.

Honako hau da erantzuna:

Lehenik eta behin, adierazi behar da enpresek aitortutako enpresa-galerak eta horien konpentsazioak Sozietateen gaineko Zergaren bi magnitude direla, eta Nafarroako zergaldi bakoitzerako aurkeztutako aitortuen erregistroetan islatzen direla.

Horrela, sozietateen gaineko zergaren urteko estatistikek magnitude horiei dagokien informazioa jasotzen dute.

Estatistikak Nafarroako Foru Ogasunaren webgunean daude argitaratuta 2009ko zergalditik:

[https://www.navarra.es/home\\_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm](https://www.navarra.es/home_es/Gobierno+de+Navarra/Organigrama/Los+departamentos/Economia+y+Hacienda/Organigrama/Estructura+Organica/Hacienda/Impuestossociedades.htm)

Zehazki, honako hau da 2018ko eta 2019ko zergaldiei buruz eskatutako informazioa:

Beraz,

### C8. NAFARROAKO ARAUDIA. SOZIETATEEN GAINEKO ZERGAREN MAGNITUDE NAGUSIAK

	2018		2019	
	Aitorpena	Zenbatekoa	Aitorpena	Zenbatekoa
Zerga-oinarri negatiboa	6.043	433.208.044	5.825	- 338.546.286
Aurreko ekitaldietako zerga-oinarri negatiboen konpentsazioa	4.277	214.223.188	4.281	232.673.746

Zenbatekoak eurotan (Nafarroako tributazioaren portzentajea aplikatuta)

1.- Nafarroako enpresek azken 2 urteetan aitortutako galera guztien batura 771.754.330 eurokoa da.

2.- Nafarroako enpresek azken 2 ekitaldi ekonomikoetan sozietateen gaineko zergan izandako galerengatiko konpentsazioen guztizko batura 446.896.934 eurokoa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 28an

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria: Elma Saiz Delgado

## Galdera, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Aranzazu Izurdiaga Osinaga andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Fondo Arraigo” kapital pribatuko eta partaidetza publikoko finantza-tresna sortzeko aholku-zerbitzua kontratatzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Arantxa Izurdiaga Osinaga andreak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00162 galdera egin du SOD20 0003 lizitazio-espeditari buruz. Honako hau da Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunak horri buruz ematen dion informazioa:

- Zer enpresari esleitu zaio kontratua?
- Kontratuan zer epe ezarri da lanak egiteko?
- Zer prezio ezarri da kontratuan?

Ondoko jakinarazten dizugu honako erantzun honen bidez:

Sodenak 2020ko azaroaren 16an argitaratutako prentsa-oharrak jasotzen zuen bezala, aholkularitza-zerbitzuak kontratatzeko lizitazioari ekingo zitzaien, kapital pribatuko finantza-tresna bat sortzea (Sodenaren laguntzarekin) edo bestela azken hori lehendik zegoen batean sartzea bultzatzearen egokitasuna aztertzeke. Tresna honen azken helburua da Nafarroako enpresa lehiakor, traktore eta beren sektorean lider direnen hazkundea erraztea, tamaina ertain eta handikoak, haien

hedapen-planak eta, ondorioz, haiek lurraldean ainguratzea eta irautea babestuz.

Ekimen parlamentarioen bidea badagoela badakigun arren, gogoratu behar da lizitazio publikoko prozesu bati buruzko informazio guztia esku-ragarri eta herritarrentzat irekita dagoela Nafarroako Gobernuaren kontratazio-atarian, honako helbide honetan:

<https://hacienda.navarra.es/sicportal/ctaDatosAdjudicacion.aspx?Cod=8148&Ticket=2101251042325FFAB9C6>

Egindako galderari dagokienez:

- Zer enpresari esleitu zaio kontratua?

“Fondo Arraigo” kapital pribatuko finantza-tresna bat sortzea (Sodenaren laguntzarekin) edo bestela lehendik zegoen batean sartzea bultzatzearen egokitasuna aztertzeke aholkularitza ekonomiko-finantzarioko zerbitzua emateko kontratua, betiere ulertuta finantza-tresna hori arrisku-kapitaleko partaidetza publikoko entitate pribatu bat izanen dela, PrincewaterhouseCoopers, Asesores de Negocios SLri (PwC) merkataritza-enpresari esleitu zaio.

- Kontratuan zer epe ezarri da lanak egiteko?

4 hilabeteko epea ezarri da PwCren eta Sodenaren arteko kontratua formalizatzen den egunetik (2021eko otsailaren 23a) kontatzen hasita.

- Zer prezio ezarri da kontratuan?

Ezarritako prezioa 70.000 euro gehi BEZa da.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

## **Galdera, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Ubidean basa fauna hiltzeari buruz (10-21-PES-00163). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ematen dion erantzuna:

1. Nafarroako Gobernuak basafaunako zenbat animalia (orkatzak, basurdeak...) zenbatu du hil direla (itota) Nafarroako Ubidean –bai 1. fasean, bai 1. fasearen zabalpenean–, ubidetik atera ezin izan direlako, arrapalaren hormigoia leuna dela-eta zutik mantendu ezin izateagatik?

Eranskin bat gehitu dugu (dokumentuaren amaieran), Nafarroako Ubidean —bere ibilbide osoan, 2004tik gaur arte— erregistratutako hilkortasunarekin.

EH Bilduk aurkeztutako idazkian aipatzen den eremuak Tafalla eta San Martin Unx zeharkatzen duten ubidearen 7B, 8 eta 9 tarteak hartzen ditu. Tarte horietan, azken hiru urteetan (2018-2020) 51 orkatz eta 18 basurde hil dira. Erreferentzia bat ezartzeko, Tafallako eta San Martin Unxeko barrutietan 144 orkatz eta 179 basurde harrapatu dira aldi horretan.

2. Gobernuak ba al du egin beharreko obrak egiteko asmorik (sartu eta irteteko arrapaletan edo gisakoetan aldaketak egitea), edo ubidearen 1. fasea eta 1. fasearen zabalpena kudeatzen duten enpresei obrak horiek egin ditzaten agintzeko asmorik, ubidera erortzen diren animaliak irrist egin gabe bizirik atera ahal izan daitezten?

Dauden erantzukizunen arabera, ubidearen kudeaketa ez da departamentu honen eskumena, ezta faunaren hilkortasuna saihesteko neurriak hartzea ere.

Hala ere, Ingurumen Zuzendaritza Nagusiak jakin du zein izan den basafaunaren tarte horretako heriotza-tasa ubidea abian jarri zenetik, eta enpresa emakidadunarekin lan egin du arazo horretarako konponbideak bilatzeko.

Baterako lan horren ondorioz, neurri hauek hartzen joan dira: Ustiapeneko langileek ubidearen barruan detektatutako faunaren jarraipena eta erreskatea.

Arrapaletan tratamendu irristagaitzaren probak egitea, pinturekin eta gainazaleko tratamenduekin.

Buia-lineak jartzea irteera-arrapaletan, animaliei irteten laguntzeko.

Arrapalak beltzez margotzea, faunak errazago ezagutu ditzan.

Arazo gehien sortzen diren ingurunean, petrila-ren gainean hesi bat jartzea, ubideak faunaren hilkortasunean duen eragina murrizten ote den ebaluatzeko.

Ubidearen ingurunekeo faunari, fauna horrek ubidearekin duen interakzioari eta egindako neurrien eraginkortasunari buruzko azterketa egitea. Azterlana aurkezteko zain gaude.

Orkatzen eta basurdeen uxagarriak probatzea.

Ingurumeneko Zuzendaritza Nagusiak eta ubidea kudeatzen duten enpresek uste dute irteerako arrapalak neurri eraginkorrak direla, kontuan hartuta hormigoizkoak direla eta malda nahiko etzana dutela animaliak arazorik gabe atera ahal izateko. Egiaztatu da buia-lineak instalatzea ere neurri eraginkorra dela, animaliak arrapaletarantz bideratzen baitituzte. Hala eta guztiz ere, Canal de Navarra SA hainbat modu bilatzen ari da zoruaren itsaspina handitzeko, haren erabilera errazte aldera.

Indarrean dagoen ustiapen-kontratuan (2020-2024 aldia) aurrekontu-partida berriak ezarri dira, zeinek ubidea emanen baitute enpresa kudeatzaileek unean uneko neurri zuzentzaile berriak berri eta egokitzeko. Aurreikusita dago neguko hurrengo geldialdian hobetu eta egokituko direla, besteak beste, Tafalla eta San Martin de Unx arteko tarteetan dauden arrapalak, eta buia-lineak instalatzen jarraituko dela halakorik ez duten arrapaletan. Ubidearen ezkerreko tarteak ere hesituko dira (urteko kanpainetan, dagoen aurrekontuaren arabera).

3. Gobernuak kalkulatu al du horrenbeste animaliarren heriotza ekiditea ahalbidetuko luketen obra horien kostua?

Aurreko puntuan aipatu den bezala, ez da departamentu honen eskumena azpiegitura hori kudeatzea. Kostuaren zenbatespena enpresa emakidadunari kontsultatu beharko zaio.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 25ean

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

(Oharra: Aipatu eranskina foru parlamentarien eskura dago Agora aplikazioan)

---

## **Galdera, parke eolikoek proiektu berrien eskaerei buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Laura Aznal Sagasti andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, parke eolikoek proiektu berrien eskaerei buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 7ko 58. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Laura Aznal Sagasti andreak idatziz erantzuteko 10-21/PES-00165 galdera egin du 2030era begirako Energia Planeko parke eolikoak hartzeko mapari buruz. Hona hemen Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilari Mikel Irujo Amezaga jaunaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuak noraino errespetatuko du 2030erako Nafarroako Energia Planeko mapek jasotzen duten sailkapen hori, proiektuen eskabideak izapidetzeko eta ebazteko prozesuetan?

Nafarroako Gobernuak bete-betean errefusatu al ditu "gai ez diren eremuak" izenekoetan kokatu nahi diren parke eolikoek eskabideak?

Honen bidez, jakinarazten dugu 2030era begirako Energia Planak orientabide gisako aurreikuspen batzuk biltzen dituela, eta Nafarroaren energia-alorrerako estrategia ezartzen badu ere, ez da erregelamendu mailako esparru bat.

Argitu behar da eremuen sailkapenean hainbat motatako baldintzatzaileak hartu direla kontuan, batzuk erregelamenduzkoak eta beste batzuk ez.

Eremu bat "gai ez den eremu" gisa sailkatzea lurralde- eta hirigintza-araudia aplikatzearen ondorio denean, eta horrek instalazio bat baimentzea eragozten duenean, baimen-eskaera ukatu egingen da, hala izan behar baitu.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko ekainaren 7an

Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga



## Galdera, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa.

### FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Adolfo Araiz Flamarique jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 4an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### ERANTZUNA

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Adolfo Araiz Flamarique jaunakidatziz erantzuteko galdera egin du Caparrosoko abeltegitzarraren instalazioetarako Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emakidak edo baimenak emateari buruz (10-21-PES-00166). Hona hemen Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilariak ematen dion erantzuna:

1. galdera:

Nafarroako Gobernuak ziurtasunez al daki Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak emandako ingurumen-baimen integratuek ukitutako instalazioetan erabiltzekoak diren Ebroko Konfederazio Hidrografikoak emandako ur-aprobetxamenduren baten titularrak ote diren Valle de Odieta, S.C.L., Hibridación Termosolar Navarra, S.L. eta Corraliza Tomillar merkataritza-entresak, Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren lehendakariaren 2008ko maiatzaren 30eko Ebazpenaren bidez Martzillako herrian emandakoaz bestela (A ataleko 56. liburukiko 127. orriko 127. zenbakia)?

Bai, putzu batetik datozen uren aprobetxamendu bat badago El Olmar parajea, Martzillako udal-mugarteko (Nafarroa) 8. poligonoko 56. lurzatian, Aragoi ibaiaren ezkerreko ertzean, ibilguak zaintzeko eremutik kanpo –haren erreferentzia 2008-A-046 da–. Abereentzako urhornidura bat da, “Valle de Odieta SCL” sozietatearen izenean Caparrosoko udal-mugarteko (Nafarroa) 17. poligonoko 43. lurzatirako.

## Referencia 2008-A-46

### DATOS GENERALES

**Procedimiento:** Aprovechamiento aguas subterráneas

**Objeto:** Concesión

**Estado:** Resuelto favorable

### INTERESADOS

#### Solicitante

Valle de Odieta, S.C.L. (Destinatario)

### DATOS TÉCNICOS

#### Toma NºOrden 1: Pozo

**Localización:** Marcilla - Marcilla (Navarra)

**Cauce:** Aragón, Rio

**Paraje:** El Olmar

**Polígono:** 8

**Parcela:** 56

#### Uso NºOrden 1: Regadíos y usos agrarios

**Subuso:** Suministro de ganado

**Localización 1:** Caparroso - Caparroso (Navarra)

**Polígono:** 17

**Parcela:** 43

Coordenadas toma: UTMx: 604689; UTM y: 4684939 (Datum ETRS89).



**2. galdera:**

Ingurumenaren eta Uraren zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 2275/2009 Ebazpenaren bidez ingurumen baimen integratua eman ostean, instalazio horien titularrek egiaztatu al dute Nafarroako Gobernuaren aitzinean instalazio horiek Ebroko Konfederazio Hidrografikoaren inolako emakida edo baimenik ote daukaten "Aragoi ibai-ko putzu alubialen batean" urtean 209.647 m<sup>3</sup>-ko emaria eduki ahal izateko? Hala baldin bada, Ebroko Konfederazio Hidrografikoak eman eta Nafarroako Gobernuaren esku dauden baimenaren edo baimenen kopia jaso nahi dut.

Zerbitzu honek duela gutxi jakin du honekin batera doan ur-emakidaren berri (Resolu-

cion2008A46 concesión agua VOd.pdf); horren bidez, Valle de Odieta, SCLri ur-emakida bat eman zaio (F31020589), Aragoi ibaiaren ezker aldean, Martzillan (Nafarroan), dagoen putzu batetik eratorritako ur publikoak aprobetxatzeko (90123), kontsumo handieneko hilabetean (abuztua) batez beste 4,79 l/s-ko emaria izanen duena, Caparrosoko udalerrian (Nafarroa) 3.450 behi-abelbururentzako hornidura emateko.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n

Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilaria: Itziar Gómez López

(Oharra: aipatutako ebazpena Ágora aplikazioan dago eskuragarri).

## **Galdera, "Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak" partidari buruzkoa.**

### **FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, "Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak" partidari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du REACT EU Navarra funtsetako "Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak" neurriaren finantzaketari

buruz (10-21/PES-00169). Hona hemen Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

REACT funtsen finantzaketaren eta programazio ekonomikoaren arloko eskumena Ekonomia eta Ogasun Departamentuarena eta Nazioarteko proiektu Zerbitzuarena da, Europako Gizarte Funtzari edo Eskualde Garapeneko Europako Funtzari dagozkion Europako funtsak baitira. Funtz horiek gastuaren hasierako aurrekontuaren gehigarriak dira.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuan luzaroko langabeak kontratatzeko pizgarrietarako partida ez jasotzeari buruz (10-21/PES-00170). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2021eko gastuen hasierako aurrekontuan

950001-96100-4709-241111 berariazko partida jaso zen, “COVID-19a. Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak. Konferentzia Sektoriala”, 1.200.000 euroko zenbatekoarekin, enpresek laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzeko pizgarriak finantzatzeko. Horrela, dirulaguntzen deialdi bakar batean bildu dira aurreko urteetan pertsona kalteberak kontratatzeko erakundeak emandako pizgarri guztiak, hau da, errenta bermatua jasotzen dutenak, iraupen luzeko langabeak eta koronabirusaren krisiaren ondorioz kaleratuak izan direnak kontratatzeko pizgarrien deialdiak. Deialdi hori Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 5eko 1511E/2021 Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta maiatzaren 12an argitaratu zen NAO-n. Argitalpen horrekin hasi zen eskabideak aurkezteko epea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, “Errenta Bermatuaren hartzailleak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Errenta Bermatuaren hartzailleak kontratatzeko pizgarriak” partidari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuan errenta bermatuaren hartzailleak kontratatzeko pizgarrietarako partida ez jasotzeari buruz (10-21/PES-00171). Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2021eko gastuen hasierako aurrekontuan

950001-96100-4709-241111 berariazko partida jaso zen, "COVID-19a. Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzekeko pizgarriak. Konferentzia Sektoriala", 1.200.000 euroko zenbatekoarekin, enpresek laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzekeko pizgarriak finantzatzeko. Horrela, dirulaguntzen deialdi bakar batean bildu dira aurreko urteetan pertsona kalteberak kontratatzekeko erakundeak emandako pizgarri guztiak, hau da, errenta bermatua jasotzen dutenak, iraupen luzeko langabeak eta koronabirusaren krisiaren ondorioz kaleratuak izan direnak kontratatzekeko pizgarrien deialdiak. Deialdi hori

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen maiatzaren 5eko 1511E/2021 Ebazpenaren bidez onetsi zen, eta maiatzaren 12an argitaratu zen NAO-n. Argitalpen horrekin hasi zen eskabideak aurkezteko epea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, "Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzekeko laguntzak" partidari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, "Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzekeko laguntzak" partidari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren gastuen aurrekontuan Enpresa arruntek pertsona desgaituak kontratatzekeko laguntzen partida ez jasotzeari buruz (10-21/PES-00172). Hona Nafarroako Gobernuo Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren 2021eko gastuen hasierako aurrekontuan

950001-96100-4709-241111 berariazko partida jaso zen, "COVID-19a. Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzekeko pizgarriak. Konferentzia Sektoriala", 1.200.000 euroko zenbatekoarekin, enpresek laneratzeko zailtasunak dituzten pertsonak kontratatzekeko pizgarriak finantzatzeko. Horrela, aurrekontu-partida bakar batean bildu da aurreko urteetan erakundeak pertsona kalteberak kontratatzekeko emandako laguntzen finantzaketa. Pertsona desgaituak enpresa arruntean kontratatzekeko laguntzei dagokien kreditua aipatutako partidari sartuta dago.

Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzailearen otsailaren 10eko 32/2021 Ebazpenaren bidez dirulaguntza horietarako 2021eko gastua baimendu zen, eta eskabideak aurkezteko epea hasi zen.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” partidako laguntza teknikorako aurrekontuari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 14ko 63. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 1ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

Navarra Suma talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera egin du REACT EU Navarra funtsetako “Enplegarritasun zaileko kolektibo zehatzak kontratatzeko pizgarriak” neurrirako aurreikusitako laguntza teknikoari buruz (10-21/PES-00173).

Hona hemen Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako kontseilariaren erantzuna:

REACT funtsen programazioaren arloko eskumena Nazioarteko Proiektio Zerbitzuarena da, Europako Gizarte Funtzari edo Eskualde Garapeneko Europako Funtzari dagozkion Europako funtsak baitira. Funtz horiek gauzatzeko baldintzak eta gastua hautatzeko eta justifikatzeko eska daitezkeen betekizun tekniko eta ekonomikoak zehaztu ondoren, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuak dagozkion erabakiak hartuko ditu neurri horiek betearazteko, balizko laguntza teknikoa barne.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2021eko maiatzaren 31n.

Eskubide Sozialetako kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

## **Galdera, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa.**

### *FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA*

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana, “Langabetuentzako dirulaguntzak, autonomo gisa has daitezen” 5 DDSS, REACT EU Navarra proiektuaren aurrekontu-partidari buruzkoa. Galdera 2021eko maiatzaren 21eko 67. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2021eko ekainaren 8an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **ERANTZUNA**

